

txintxarri



Esperientzia ahaztezina

Abuztu hasieratik dago Greziako Lesbos irlan Miren Bardaji herritarra; yoga, akroyoga eta igeriketa klaseak ematen dizkie errefuxiatuei / 8-9

MIREN BARDAJI

Joko Olinpikoen bila

Munduko Txapelketa jokatzeko ari da Maialen Chourraut piraguista, La Seu d'Urgellen / 11

Ikasturte honetako ikastaroak aurkeztu ditu Kultura eta Gazteria sailak; irekita daude izen-emateak / 2

Herriko bertsolariak eta gai-jartzaileak oholzaz oholza dabilta Gipuzkoako Txapelketan / 3

solaskide
Astindu mingaina!

IZEN EMATEA: URRIAREN 30ERA BITARTE

Ttakun Kultur Elkarte | Geltoki kalea 4 | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943 37 14 48 • 695 785 389



Kultura eta Gazteria saileko zinegotziak eta teknikaria aurkezpenean. TXINTXARRI

Gazte eta helduentzako ikastaro aukera zabala

Manuel Lekuona kultur etxeak eta Gaztelekuak hamaika ikastaro eskainiko dituzte 2019-2020 ikasturtean zehar. Tailerrek iraupen ezberdina dute: urte osokoak, hiruhilekoak edo hilabetekoak. Hainbat ikastaroen izen-ematea martxan da

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak Manuel Lekuona Kultur Etxeko eta Gaztelekuo 2019-2020 ikasturteko ikastaroak aurkeztu ditu. Udal ordezkari eta teknikariek ikastaroen eta izen-emateen nondik norakoak azaldu dituzte.

Gaztelekuan 12 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako ikastaroak izango dira. Dantza urbanoak, sare sozialak, moda, perkusioa... hilabeteko iraupena izango duten sei tailer izango

dira. Autodefentsa feminista ere izango da lehen hiruhilekoan. Horrez gain, urte osoan zehar eskola laguntza eskainiko da.

Bestalde, sendabelarrak, gorputz-jarrera heziketa, ipuin sorkuntza, ipuin kontaketa, sukaldaritza bikoteentzat, joskintza edo mindfulness dira Manuel Lekuonan helduei zuzendutako ikastaroetako batzuk.

Ikastaroen izen-ematea tailerra eskainiko den lekuan egin behar

da, Manuel Lekuonan edo Gaztelekuan. Udalaren webgunean ere izango da inskripzioa egiteko aukera. Erroldatuek eta ez erroldatuek prezio ezberdina izango dute.

Kulturako ikastaroetan hiru epe izango dira izen-emateak egiteko: irailaren 23tik urriaren 4ra, abenduaren 16tik urtarrilaren 3ra eta otsailaren 17tik 28ra.

Gazteen tailerrei dagokionez, urriaren 4ra arte dute interesatuek Autodefentsa

Ikastaro eskaintza

Gaztelekua

	Aldizkakotasuna	Eguna
Eskola laguntza	Urte osoa	Osteguna 17:30 -19:30
Autodefentsa feminista	Urria/Abendua	Asteartea eta osteguna 18:00-19:00
Dantza urbanoak	Azaroa	Larunbata 11:30-13:30
Perku Mundua	Abendua/Otsaila	Larunbata 11:30-13:30
Sare Sozialak	Otsaila	Larunbata 11:30-13:30
Moda	Martxo	Larunbata 11:30-13:30
Zaindu zaitez!	Apirila	Larunbata 11:30-13:30
Mugi zaitez!	Maiatza	Larunbata 11:30-13:30

Manuel Lekuona

Gorputz-jarrera heziketa	Urte osoa	Asteartea 19:45-21:15
Sabeleko dantza	Urte osoa	Osteguna 19:45-21:15
Joskintza	Urte osoa	Osteguna 18:30-20:30
Mindfulness	Urte osoa	Asteazkena 19:00-21:00
Automakillaje	Urria/Abendua	Asteartea 17:30-19:30
Kremak eta pomadak	Urria/Abendua	Asteazkena 18:00-20:00
Ipuinen sorkuntza	Urria/Abendua	Asteartea 18:00-20:00
Estilismo eta irudia	Martxo/Maiatza	Asteartea 17:30-19:30
Sendabelarrak	Martxo/Maiatza	Asteazkena 18:00-20:00
Ipuinen kontaketa	Martxo/Maiatza	Asteartea 19:15 21:15
Sukaldaritza bikoteentzat	Urtarrila	Larunbata 11:30-13:30
Komunikazio eraginkorra	Otsaila	Astelehena 18:00-20:00

feminista ikastaroan parte hartzeko. Gainontzeko ikastaroen izena ematea hamar egun lehenago irekiko da. Eskola laguntzaren kasuan, ez da izen ematerik egin behar.

Automakillaje, joskintza eta sare sozialen ikastaroetan

ikasleak bere materiala eraman behar duela jakitera eman dute.

Ikastaroei eta izen emate epei buruzko informazio gehiago Manuel Lekuonan, Gaztelekuan edo udalaren webgunean dago eskuragarri.

Gautxoria izango da gaur, Manuel Lekuona kultur etxean

Demode Quartet eta Amaia Gonzalez akademiako kideak izango dira Manuel Lekuonako areto nagusian

Txintxarri

Manuel Lekuonako ikasturte berriari hasiera emateko Gautxoriaren edizio berria antolatu du Lasarte-Oriako udalak. Gaur, 21:00etatik aurrera, Manuel Lekuonako areto nagusian eta kafetegian umorea, musika eta dantza izango dira nagusi.

Lehenik, Demode Quartet taldea izango da areto nagusian. Musika eta umorea nahasten dituen emanaldia izango da. A capella edo instrumentuez lagunduta, doinu ezagunen bertsiok eskainiko dituzte.

Ostean, Amaia Gonzalez akademiako ikasleen dantza erakusketa txikia izango da.

Aretoko emanaldia amaitzean, 22:00ak aldera, kafetegia irekiko da, Amaia Gonzalez akademiako kideek dantzan egitera animatuko dituzte hurbiltzen diren herritarrak. Dantza gidatzeko akademiako irakasle bat ere izango da bertan.

Zer jan eta edan ere izango da. Hartutakoa ordainpekoa dela ohartarazi dute udaletik.

Areto nagusiko emanaldiak ikusi ahal izateko gonbidapenak behar dira. Manuel Lekuona kultur etxeko leihatilan eskuragarri daude, gaur 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era.



Demode Quartet izango da berriro ere Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI

Muñoa eta Azpiroz beste saioen zain geratu dira

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako Ordizia eta Zumaiako saioetan bigarren postuan sailkatu dira Unai Muñoa eta Asier Azpiroz. Ane Labakak Elgoibarren kantatuko du igandean. Urriaren 5ean, berriz, Lasarte-Orian jokatu da azken final-zortzirena

Txintxarri

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren hirugarren eta laugarren final-zortzirenak jokatu ziren lehengo asteburuan, Ordizian eta Zumaian. Earra bertso eskolako Asier Azpiroz eta Unai Muñoa izan ziren kantuan. Biek eskuratu zuten bigarren postua euren saioetan.

Ordiziako Herri antzokia bete zuten bertsozaleek larunbatean. Beñat Lizasok garaipena lortu zuen eta bere atzetik Asier Azpiroz sailkatu zen, 423 punturekin. Hamarreko txikian eta kartzelan lan ona egin zuen Earra! bertso eskolan aritutako gazteak, baina Lisazok saio biribilagoa egin zuen. Aurkezle lanetan, Maddi Labaka herritarra egon zen.

Igandean, Aita Mari Zineman, Gorka Maizek sei puntu eta erdiko tartea ateratzen zion bigarren sailkatuari, Unai Muñoa bertsolariari.

Lan guztietan fin ibili zen Muñoa, baina kartzelan puntuak galdu zituen eta azkenean, 434.50 puntu eskuratu zituen.

Muñoa eta Azpiroz falta diren final-zortzirenen menpe daude, txapelketan aurrera egiteko. Izan ere, final-zortzirenetako irabazleek gain, puntuazio onena lortzen duten hamazazpi



Unai Muñoa Zumaiako saioan kantuan. BERTSOZALE ELKARTEA

bertsolariek parte hartuko dute txapelketako hurrengo fasean: final-laurdenetan.

Labaka, Elgoibarren

Asteburu honetan, berriz, Zumarraga-Urretxu eta Elgoibarren dira final-zortzirenak. Azken horretan, Lasarte-Oriako ordezkari bat izango dugu: Ane Labaka.

Labakak Iñaki Gurrutxaga, Unai Gaztelumendi, Endika Igartzabal, Jokin Uranga eta Eñaut Martikorena izango ditu buruz buru igandean.

Bestalde, urriaren 5ean, larunbatez, kultur etxea hitz eta doinu beteko da, azken final-zortzirena jokatu da eta.

Oholtzara Aitor Salegi, Eneko Araiztegi, Iñaki Zelaia, Mikel Artola, Oier Aizpurua eta Unai Izagirre igoko dira. Imanol Artola izango da aurkezlea.

Elgoibar eta Lasarte-Oriako saioetako sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean eskuratu daitezke. Sarrerarik geratuz gero, saioen egunean 16:00etan txarteldegian erosi ahalko dira.



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Lokaztea

“Iraultzaile pentsamenduz, bai etxerako ere banu!” Lujanbiok. Nik, ordea, apur bat aldatzeko lizentzia hartu dut eta “bai kalerako ere banu!” esatera ausartu naiz.

“Gazteria oso geldirik zegoela ikusi eta zerbait egin behar genuela sentitu genuen” esan zidan Lasarten sortu berri den gazte antolakunde bateko kide batek. Geroztik, baieztapen horrek eman dit zer pentsatua. Nik neuk ere (nire kokapen estatistikotik) gazte mugimenduen beharra eta garrantzia sumatu ahal izan ditut maiz; zer dela eta, beraz, ez naiz mugimendu horien partaidea?

Beharbada erosotasuna da, konfort gunetik ateratzeko gogorik ez izatea. Beharbada iniziatiba falta; kuadrillakoak ez badira talde feministan sartzen ni ere ez. Baliteke segurtasun eza ere izatea; nik zer eskaini diezaioket herriko Gazte Asanbladari?

Eta, gauzak horrela, hankak ez lokaztea erabakitzen dugu gainerakoak gure orde zikinduko direlakoan. Baina noski, herrigintzaren eta gazte mugimenduen aldeko gure postura sutuki defendatzen dugu, emakumeen ahalduzko beharraz hausnartu eta Twitterreko kontura txio iraultzaileak igotzen ditugu.

Indibidualki teorizatzeak badu bere pisu eta garrantzia, ez da nahikoa, ordea. Ezin daiteke harririk mugitu, ezin daiteke katerik hautsi lanketa eta esku-hartze kolektiborik gabe. Norberaren kontraesanak onartuz, barrua hankaz gora jartzen diguten gauza guzti horien inguruan lan egin behar dugu, hankak lokatzetan sartuz, barrutik kanpora, alde edo kontra. Baina egin egin behar dugu.

Bizikletak konponduz

Mahai informatiboa, inkesta, ikastoletan saioak... Mugikortasun astea aurrera doa. Atzo bizikletak konpontzeko tailerra izan zen Okendo plazan. Gaur, ostirala, Ondo ibili ibilbide osasuntsua izango da eta arratsaldean, familiei zuzendutako Geocatching jokoak. Bihar, larunbata, bigarren eskuko azoka izango da Okendon 10:00etatik 14:00etara eta bizikleta ibilbidea, 11:00etatik 12:00etara.



TXINTXARRI

Badator GAZTE KLUBA!
2019-2020

ostiralero
LH3-LH6ko
gaztetxoentzat
17:30etik
19:30era

TAILERRAK
• sukaldaritza
• malabarak
• magia • eskulanak

TXALAPARTA
IRTEERAK
FESTAK

ADI!

asia@ttakun.eus
943 37 14 48
Geltoki kalea, 4

Lasarte-Oria Kultur Buztea

ISLANDIA
(itsas bidaia)

NORVEGIAKO FIORDOAK
(itsas bidaia)

ERRUSIA

ZETAREN BIDEA
(Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK
Denboraldi aurrerapena

ESLOVENIA & ISTRIA

NOAOO BIDAIAK
T.: 943 373 613
info@noaoa.eus
Hipodromo Etorb. 10,
Lasarte-Oria

Lurrazpiko zaborrontziek, birziklapen tasa "txarrak"

Zaborra biltzeko sistemaren inguruan udalak egin nahi duen parte-hartze prozesua "faltsua" dela salatu du Aire Garbia plataformak. Zaborraren %60a gaika biltzea ahalbidetuko duen sistema ezartzeko eskaria egin dio plataformak udalari

Txintxarri

Pasa den astean iragarri zuen Lasarte-Oriako Udalak zaborra biltzeko sistemaren inguruko parte-hartze prozesu bat jarriko duela martxan. Erabaki hori ez zaio batere gustatu Aire Garbia plataformari, eta taldearen iritzia jakinarazi dute.

Eztabaida edo parte-hartze prozesua "faltsua" dela salatu dute. "Lurrazpiko edukiontzia arazo estetikoengatik jarri ziren, baina inpaktu bisual negatiboa askoz ere handiagoa da", azpimarratu du plataformak.

Lurrazpiko edukiontzia "arratoi habiak" direla ere nabarmendu dute. Bertan topatzen dituzte bizirauteko eta hedatzeko jangarriak. Arazo horri aurre hartzeko plagaren aurkako tratamenduak egin behar izan direla ere ekarri dute gogora.

Horrekin batera, sarritan urez betetzen direla ere azaldu dute. "Horren ondorioz, kutsadura sortzen da, eta ekipoak ere azkar hondatzen dira, zerbitzuaren kaltetan".

Zerbitzua zaildu

Arazo horiek zabor bilketaren zerbitzua "zaildu eta garestitu" egiten dute. Zaborren kudeaketaz arduratzen den FCC enpresak aitortu du lurrazpiko zaborrontziak



Lurrazpiko edukiontzien bidez biltzen da zaborra, Lasarte-Orian. TXINTXARRI

"askotan" matxuratzeko direla, eta horrez gain, horien garbiketarako tresneria zehatza behar izateak "dezente" garestitzen duela zerbitzua.

Hortaz gain, lurrazpiko edukiontzietan zaborra biltzeak "ez du zaborra gaika biltzea ahalbidetzen. Birziklapena zailtzen du, eta gogora ekarri behar dugu, zaborren kudeaketaren helburu nagusia birziklatzea izan behar duela".

Arazo nagusia, ordea, beste bat dela defendatu du Aire Garbia plataformak.

"Arazoa da Gipuzkoan, birziklapen tasa baxuenetakoa

duela Lasarte-Oriak, Donostiako emaitzak bakarrik dira, herrikoak baino karkarragoak".

Lasarte-Oriak zaborraren %46,63a soilik biltzen du gaika, eta hori, udalak zaborra biltzeko sistemarik "kaskarrena" erabiltzearen ondorio dela argudiatu dute.

Gainera, San Marko gutxien birziklatzen duen mankomunitatea dela ere azaldu dute, eta hori, Lasarte-Oria eta Donostiaren gaikako bilketaren emaitza "kaskarren" ondorio da.

Gaikako bilketa "eraginkorra" ahalbidetuko duen sistema ezartzeko eskaria egin du taldeak.

Hilabete barru jakingo da Ibon Fernandez Iradiren epaia

Urriaren 30ean ebatziko du epaileak larriki gaixo dagoen preso lasarteoriatarren egoerari buruz

Txintxarri

Asteazkenean aztertu dute larri gaixorik dagoen presoaren kartzela zigorra etetearen eskaera. Esklerosi anizkoitza diagnostikatu ziotenetik, laugarren epaiketa izan da preso lasarteoriatarrentzat.

2014. urtean, gaixotasuna diagnostikatu eta bi urtera ekin zion bide judizialari; gaixotasunaren hartatzea eta kartzela bateraezinak direla frogatzeko.

Eskaerak ezeztatu egin dizkiote ordea, baina, legerari eutsiz, beste

behin eskatu dute zigorraren suspentsioa.

Kontsentsua bai, irtenbiderik ez Presoa "arduratuta" dagoela jakinarazi du Lasarte-Oriako Sarek. Presoen gaiak adostasuna badu, eta legeek ere barne hartzen badute ere, ez zaio irtenbiderik ematen, eta horrek "kezkatuta" dauka Fernandez Iradi.

2019ko martxoan Gipuzkoako Batzar Nagusietako Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Batzordean onartu zuten larri gaixorik dauden presoak espetxetik ateratzea.



BUENETXEA

Buenetxearen XX. urteurren festa

Ospakizun asteburua izan dute Buenetxea tabernan. Hogei urte bete dituzte ateak lehenengoz zabaldu zituztenetik, eta ekitaldi ugariekin ospatu dute urtemuga. Txalaparta doinuekin hasi dute urteurrena, eta horren ostean, tatuaje saioak, umeentzako tailerrak, motorzaleen irteera, jumping saioa eta musika emanaldiekin osatu dute egitaraua.

Fideltasuna saritzeko, 1.300 euro banatuko ditu Aterpeak

100 euroko 13 bonu zozkatuko dituzte merkatarien elkarteak osatzen duten dendatan gastatzeko

Txintxarri

Bezeroen fideltasuna saritzeko, egitasmoa martxan du Aterpeak. Bezeroaren hamabostaldian, 1.300 euro banatuko dituzte, merkatarien elkarteko dendatan erosketak egiten dituzten bezeroen artean.

100 euroko 13 bonu izango dira, eta 10 euroko txarteletan banatuta egongo dira. Horrek, ordea, ez du bezeroa mugatuko; bezeroak erabaki ahal izango du zein diru kopuru gastatu nahi duen denda bakoitzean.

Herria bizirik mantentzeko bertako establezimenduetan kontsumitzearen garrantzia jabetzeko egitasmo bat baino gehiago jarri ditu martxan, Aterpeak. Horieta bat izan da *Leku Guztietan Kultura* egitasmoa. Hiru musika emanaldik osatu dute iraileko egitaraua, eta ostiral honetakoak itxiko du aurtengoa. Bossa Quartet taldea arituko da, Jaizkibel plazan. 19:00etan hasita, ordubeteko iraupena izango du kontzertuak.



Aterpeko dendariak bezeroaren hamabostaldiaren aurkezpenen. TXINTXARRI

Monika Belastegi BERGARA

Bergarako Errekalde jauregian batu ditu TTAP aldizkariak Elena Laka eta Kike Amonarriz. Elena Laka 2014ko apirilaz geroztik Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izan da eta kargua utzi egingo du. Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaritzarako hautagai moduan aurkeztuko da Kike Amonarriz, gaur, ostirala, Andoainen egingo den batzar nagusian. Hark hartuko du Lakaren testigua.

Elkarrizketa abiatzeko, eta ikus-entzuleak kokatzeko, esan behar dugu Bergaran gaudela, eta ez da kasualitatea Euskaltzaleen Topaguneaz berba egiteko Bergaran elkartu izana.

E.L.: Bai, eta Bergarak badu esanahi berezi bat Euskaltzaleen Topagunearentzako, ezta? 1996an tokian tokiko euskara elkarteek pentsatu zutenean edo pentsatu genuenean tokian tokiko egitura hori gainditzea eta horrek batuko zituen egitura nazional bat sortzea, sorrera bilera hori Bergaran egin zen. Horregatik badauka esanahi berezia.

Biak ere beteranoak Topagunean, eta zure kasuan, Elena, 2014az geroztik lehendakaria. Orainxe laga duzu; zergatik?

E.L.: Bost urte badira zerbait; kar, kar, kar. Lagatzeko momentu bat badela uste dut. Bost urtean ibili naiz, ahal izan dudanean neurrian, buru-belarri sartuta eta inplikaturatuta, eta orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingo ditu, aro berri bat dator, eta jauzi bat aurrera egingo duena. Nik uste dut nire lana egin dudala, eta gizarte mugimenduetan aldaketa hauek gertatzea oso onuragarria dela uste dut. Pertsonen osatutako erakunde bat da, eta nire ustez ezin da egonkortu pertsona bat, ez delako ona. Nire lana egin dut, oso-oso pozik egin dut, eta Euskaltzaleen Topaguneaz berba onak besterik ez ditut esateko, eta orain, Kikeri pasatzen diot lekukoa. Eta, gainera, hau ez da nire lana.

Balorazio positiboa egiten duzu, Elena? Pozik uzten duzu? Arantzaxoren bat?

E.L.: Bai, jakina geratu direla gauzak. Balorazioa, modu pertsonalean eta aktibista moduan, eta mugimendu moduan intentsoa eta positiboa izan da. Maila pertsonalean geratzen naiz izandako harreman guztiekin, bai gizarte

"Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu"

ELENA LAKA ETA KIKE AMONARRIZ TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA ETA HAUTAGAIA

TXINTXARRI aldizkariak bat egin du Tokikomen proposamenarekin, eta Ttap Aldizkariko lagunek egindako elkarrizketa argitaratu du; Topaguneko lehendakari aldaketari buruzkoa da



Elena Laka eta Kike Amonarriz: Topaguneko lehendakaria eta hautagaia. DANI SANCHEZ

mugimenduekin, eragileekin eta erakundeekin. Fase ezberdinak igaro ditugu, baina guztiak emankorrak eta uste dut oso aberatsak izan direla. Euskaltzaleen Topaguneak jauzia eman duela uste dut. 2014an, Mikel Irizar orduko lehendakariak zioen etorkizuna genuela irabazteko, eta uste dut pusketatxo bat hortxe irabazi dugula. Jauzi handia egin dugula uste dut. Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu eta hartzen dihardugu lekua, eta ez da inork ematen digulako, baizik eta guk egin dugulako jauzi hori. Hori egiten ari gara, baina oraindik asko dago hobetzeko. Arantzak? Baita ere. Uste dut mugimenduaren kohesioan badagoela oraindik sakontzeko eta lantzeko tartea. Nik izan ditudan mugak nire jardun profesionalagatik izan dira. Boluntariozko lan batean ibili naiz, eta 24 ordu ditu egunak, ez gehiago. Baina mugimenduak hemendik aurrerako jauziak talde berriarekin egingo ditu. **Esku onetan uzten duzu lekukoa, eta zuk nola hartzen duzu, Kike?**

K.A.: Ba, ilusio handiz! Elenak esan duen bezala, bost urte hauetan berak lideratu duen mugimendu guztia ikaragarria izan da. Jauzi ikaragarria eman dela uste dut, ilusio handiz bizi izan dugun jauzi bat, gainera.

Nire ustez, Elenarekin diskurtso aldaketa bat ere etorri

da. Euskararen inguruan hitz egiteko modu berri bat, eta Elenak euskalgintzaren bilakaera hori irudikatu du. Orain, nik ilusioarekin hartuko dut, baina baita erantzukizunarekin, oso puntu onean, gainera, sekulako lana egin delako urte hauetan guztietan. Lan horri beste urrats bat, beste salto bat eman behar zaio, eta mugimendua zabaltzearen bidetik eta indartzearen bidetik ikusten dut nik. Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da, eta horri edukiak, eduki sakonak, eman behar zaizkio. Erronka, beraz, orain arte lortutako zaintzea izango da, eta horri etekina atera behar diogu.

Euskaraldia aipatu duzu, Kike, eta izan duen garrantzia. Uste duzue Euskaraldiak euskalgintzari eraldaketa ekarri diola? Zer ekarri dio?

K.A.: Euskaraldia prozesu luze baten azkeneko begia izan da, nahiz eta jarraipena izango duen gerora. Ez da horrelako batean sortu. Euskaltzaleen Topagunean lan handia egin da aurretik. Lehenengo, mugimenduaren barruan; eta gero, euskalgintzako gainerako eragileekin, erakundeekin... Egin den lana, sortu den giroa... horren ondorio izan da Euskaraldia. Bakoitzak bere aldetik jarri du, eta 2017a uste dut izan zela giro aldaketarako eten bat, konfiantzan oinarritutakoa. Gaur egungo egoera zubiarena da, sareak egitearena. Eta elkarlanaren bitartez Euskal Herria euskalduntzea.

Topagunearen lan lerro nagusia Euskaraldia izan da, baina baditu beste batzuk ere. Bere jardueraren zati garrantzitsu bat betidanik kultura eta aisialdia ere izan da. Azken urteotako proposamen asko gazteei zuzendutakoak izan dira. Nola ikusten dituzue belaunaldi gazteak?

E.L.: Jende horri komunitate bat eskaini behar diogu. Gasteizko auzo baten euskaraz ikasi duen eta euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai den ume batek ez badu gero non erabili, alferrik ari gara hainbeste baliabide erabiltzen gero alferrik xahutzeko.

K.A.: Hor mezu indartsu bat dago entitateei begira. Hau da, "nahiz eta zuek egiteko gai ez izan, aukerak sortu behar dituzue, eta hori bada zuen erantzukizuna datozen belaunaldiak aukerak izan ditzan". Oso itxaropentsu nago gazte munduari begira.

Erdi Aroz jantzi, gozatu eta erosi

Asteburuan zehar Erdi Aroak hartu du Lasarte-Oria. Herriak ehunka mende egin ditu atzera. Ostiralarekin hasi da azoka eta igandean bukatu. Herria hartu dute artisauen postuek, musikariek, bufoiek eta hegazti harrapakariek

Beñat Lizaso Garcia - Maddi Zaldúa

IV. Xacobeo azoka izan da aurtengoa eta lasarteoriarren egutegietan data seinalatua bihurtu da jada. Gaiteroen kalejirek postuek koloretzatutako kaleak dantzan jarri dituzte. Bufoi kuadrilla bat solte ibili da herriko bazterrak alaitzen eta Ama Brigitarren komentu aurrean herritarrek gudarako prestatzeko asmoz egon dira zaldunak.

Ehunka lagun izan dira Kale Nagusian eta Okendo plazan artisauak eskainitakoa ikusten eta erosten. 105 postuk hartu dituzte Lasarte-Oriako izkinak, eskaintza zabalarekin. Etxerako tresneria, arropa, janaria, edariak... Hamaika gauza erosteko aukera izan da asteburu osoan zehar.

Ostiral arratsaldean zabaldu zituen ateak azokak, baina irekiera ofiziala larunbatean egin zen. Udal gobernu taldeko ordezkariak aureskua dantzatu ostean, pregoia irakurri eta horrekin batera jarri zen martxan merkatua.

Azokaren ardatza artisauen postuak izan diren arren, kale

ikusizunek ere garrantzia handia izan dute. Kalejiran ibili dira egunero gaiteroak. Aurten ere Acibreira taldea izan da lan hori egiteaz arduratu dena, eta doinu alai bezain ederrez gozatu ahal izan dute bertaratu direnek. Ez dira bakarrik aritu, ordea; bufoien laguntza izan dute Acibreirako musikariek, eta etengabe herritarrek zirikatatu eta irribarreak ateratzeko ardura ezin hobeto bete dute. Alaitasuna banderatzat hartuta girotu dute asteburu.

Dragoi handi bat ere ibili da Kale Nagusian barrena. Gaiteroen doinuei jarraituz, azokako jendartean aritu da dantzan, eta gerlari txikiren baten borrokari ere aurre egin behar izan dio.

Adin guztiei zuzendutako ekitaldiz jositako egitaraua prestatu dute aurtengo azokarako ere. Etxeko txikiak ipuin kontalari eta hegazti harrapakarien erakustaldiarekin ederki gozatu dute asteburuaz.

Berrikuntza nagusia Cabalbur kanpalekua izan da. Bertan herritarrek Erdi Aroko

kanpamentu militar baten nondik norakoak ezagutzeko aukera izan dute. Garaiko arropak jantzi eta erabiltzen ziren arma zein armadurak ikusi eta probatzeko aukera ere izan dute lasarteoriarrek. Interes handia sortu du kanpalekuak eta armak probatzera ausartu denik ere egon da.

Igande iluntzean itxi ditu ateak laugarren Xacobeo Azokak. 21:30ean amaitu da aurtengoa, eta dagoeneko V. edizioaren zain geratu da Lasarte-Oria. Egun hauetan bitzakoa beste behin gozatzeko irrikan izango dira herritarrek.

Antolatzaileen balorazioa

Pedro Carrasco, Xacobeo 2021eko arduradunak azaldu du aurtengo azokak ere, aurrekoen antzera, "arrakasta handia" izan duela. "Jende ugari hurbildu da Lasarte-Oriako parke tematikora, eta horrek lagundu du giroan". Erosketei dagokionez, ordea, ez dira salmenta handiak izan, baina herriko eta inguruko komertzio, hotel, taberna eta bestelako zerbitzuetan "eragin handia" izan duela azpimarratu du.



Ostiraletik igandera izan da Erdi Aroko azoka, Lasarte-Orian. TXINTXARRI



Askotariko kale ikuskizunek girotu dituzte herriko kaleak. TXINTXARRI



Eulali ipuin kontalariarekin ederki pasa dute gaztetxoek. TXINTXARRI



Zuzeneko musika emanaldiez gozatu ahal izan dute azokara gerturatu direnek. TXINTXARRI



Hegazti harraparien erakustaldiak ere ez du hutsik egin aurtengo azokan. TXINTXARRI

Bezeroaren Hamabostaldia

Lasarte-Oria 2019

1.300€ saritan

**LASARTE-ORIAN BIZI,
LASARTE-ORIAN EROSI**



**Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian
irailaren 30etik urriaren 11ra,
eta parte hartu erosketaren zozketan**

ALBA MODA	BETELU GESTORIA	ORMAZABAL LORADENDA
ARKUPE TABERNA	ALCAR LEIHOAK	NOELIA CALERO OSTEOPATIA
ABREU BAZARRA	RAKEL MASAJISTA	JOSEMA BURDINDEGI-SARRAILAGINTZA
BIDEO LAGUNAK	ARITZA MERTZERIA	AMALUR ZIBERLOKUTORIOA
NOGUES MODA	OIHANA ESTETIKA	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA
MAYA LENTZERIA	EKA YOGA STUDIO	ANA GIZONEZKOEN ILEAPAINDEGIA
OLMI MERTZERIA	LAVIE GASTROBAR	MILLA FINKEN ADMINISTRAZIOA
NOAOA BIDAIK	DULCE TENTACIÓN	ZURLAN ATE ETA LEIHOAK
LIZARRI OPTIKA	AVENIDA TABERNA	TXEMA VALLES-PUBLIBROCK
YOLANDA TABERNA	ITURBE OINETAKOAK	DOAL PSIKOLOGIA ZENTRUA
LASARTE TABERNA	ABEND GARAGARDOTEGIA	MARIAN OLAIZOLA ILEAPAINDEGIA
MAY ILEAPAINDEGIA	OLA MARKOGINTZA	AMAIA OLONDRIS PODOLOGOA
SAITO GIMNASIOA	ORBELA EKODENDA	SILVIA LUIS ARBIZU FINKEN ADMINIST.
NATURHOUSE	IZARRA BITXITEGIA	STRATFORD INGELES AKADEMIA
ORUE BOTIKA	SUKOA BURDINDEGIA	BIZKER INPRIMATEGI DIGITALA
VITERI MUGIKORRAK	CARREFOUR EXPRESS	KIMA MASAJE ZENTRUA
HALCÓN BIDAIK	URRUZOLA MERTZERIA	KAIZEN ALTZARI ETA DEKORAZIOA
BEA ILEAPAINDEGIA	MAIANE LURRINDENDA	ALDAZ HORTZ KLINIKA
RK HIGIEZINENAK	BUENETXEA TABERNA	ARREGUI ELEKTRIZITATEA
TXEMA TABERNA	IZAGUERRI+C LOTERIAK	HITZ-KIRIBIL LOGOPEDIA
IRIGOYEN OPTIKA	BERASATEGI KAFEAK	NORTH TEAM NUTRIZIOA
MABEL MODA	AITONAK OKINDEGIA	ARAETA SAGARDOTEGIA
LEDER OINETAKOAK	MARBELL ILEAPAINDEGIA	MULTIOPTICAS LASARTE
PATRICIO TABERNA	ARTSIER ARGAZKILARIA	SANTANA INFORMATIKA
PRIMERAN TABERNA	DEL ORIA KRISTALDEGIA	ISU LEIHOAK
ZUMABURU TABERNA	DECO 75 ETXERAKO EHUNAK	IMAGINE JANTZI DENDA
EGUZKI TABERNA	ADATS ORRAZTEGIA	INES FLORES ESKULANGINTZA
TXARTEL KAFETEGIA	BUS TABERNA KAFETEGIA	



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

"Esperientzia izugarria izaten ari da; begiak ireki dizkit"

MIREN BARDAJI YOGA AND SPORT FOR REFUGEES PROIEKTUKO BOLUNTARIOA

Abuztua pasatzera joan, eta urrian itzuliko da Miren Bardaji Lesbosetik. Yoga, akroyoga eta igeriketa klaseak ematen dizkie errefuxiatuei, One Happy Family izeneko komunitatean

Irigo Gonzalez Sarobe

"Greziara zoazela? Zertara? Zer gertatzen da han?". Galdera horri behin baino gehiagotan erantzun behar izan zion Miren Bardajik (Lasarte-Oria, 1992) udan, Yoga and Sport For Refugees Gobernu Kanpoko Erakundearekin herrialde horretako Lesbos irlara joan baino lehen; bertako kanpamentuetatik noiz aterako zain dauden milaka errefuxiatuen egoera ezagutzeko eta haiei laguntzeko asmoz egin du bidaia, Miren Zubeldia oñatiarrarekin eta Elixabet Manzano eibartarrarekin batera -yoga

irakaslea eta medikua dira, hurrenez hurren-.

Turkiar kostatik kilometro gutxitara dago Lesbos irla. Errefuxiatuen krisia lehertu zenetik, 2015. urtean, milaka eta milaka pertsona iritsi dira hara. Mafei dirutza ordaintzen diete, 1.000 euro inguru; baldintza ezin eskasagoetan bidaiatzen dute -txalupetan eta teorlan salbamendukoak diren jakak soinean-; eta, itsasoan itota hiltzen ez direnak, han geratzen dira harrapatuta, Europako mugak itxita daudelako 2016. urtetik -migrazio akordioa

sinatu zuten Europar Batasunak eta Turkiak-. Afganistandik eta Ekialde Hurbileko herrialdeetatik datoz iheslari gehienak, hango gerretatik eta pobreziatik ihesi. Aegean Boat Report erakundearen arabera, asteen 1.445 pertsona iritsi dira Lesbosera; greziar irlara, 2019an, 32.968.

Errefuxiatuen hiru kanpamentu ditu Lesbosetik: Pikpa, Kara Tepe eta Moria. Hiruetan bizi dira iheslariak baldintza penagarrietan. Adibide bat: 3.000 pertsonarentzat daukate tokia Morian, eta 10.000 inguru bizi dira gaur-gaurkoz. Olive Grove eta Jungle gunek



Esperientzia ahaztezina bizitzen ari da Miren Bardaji (erdian, zuriz) Lesbos uhartean.

sortu dituzte errefuxiatuek Moriatic gertu, denak ez direlako han kabitzen. "Asilo politikoa eskatzeko bilera irlara iritsi eta urtebetera lor dezakete, edo beranduago", azaldu du Bardajik. "Aukera bakarra dute".

Hori da, oso labur esplikatur, Grezian -Lesbosen eta inguruko irlatan bereziki- gertatzen ari dena. "Hona [Lesbosera] etorri arte ez duzu ezagutzen pertsona horien errealitatea nolakoa den; begiak ireki dizkit".

Abuztutik Lesbosen

Jaioterritik ihesi joan etorkizun hobe baten bila, eta Lesbosen harrapatuta geratu, baldintza ezin eskasagoetan. Hori da milaka pertsonaren egoera uhartean. Haien egunerokoa zertxobait hobetze aldera, GKE eta boluntario ugari ari dira lanean. Horietako bat da Yoga and Sport For Refugees. Estelle Jean frantsesak sortu zuen, 2017an. Errefuxiatu talde batekin batera egiten zuen lasterka, Kara Tepetik Moriara. Kirolak pertsona horiengan asko eragin dezakeela sinetsita, ekimena erakunde bihurtu zuen.

Bardajik yoga, akroyoga eta igeriketa klaseak -azken horiek, uda bukatu arte- ematen ditu nagusiki, One Happy Family

izeneko komunitatean. Kara Tepeko kanpamentutik oso gertu dago, eta Moriatic urrunago -50 bat minutura, oinez-. "Guregana etortzen dira hainbat errefuxiatu egunero, antolatzen ditugun ekintzetan parte hartzera: ez dugu beraientzako lan egiten, beraiekin batera baizik. Hori da gakoa", azaldu du lasarteoriatarrek. "Ahaldundu egin nahi ditugu". Bazkariak ematen dituzte, eta errefuxiatuek prestatzen dute janaria; baratze organikoa zaintzen dute; eta bizikletak eta antzeko ibilgailuak konpondu, besteak beste. Aipatutakoez gain, gimnasio bat ere badaukate. Hor ematen ditu

"IRLARA IRITSI ETA URTEBETERA LORTZEN DUTE ASILOA ESKATZEKO BILERA, EDO BERANDUAGO"

"ERREFUXIATUEKIN EGITEN DUGU LAN KOMUNITATEAN; AHALDUNDU EGIN NAHI DITUGU"



Lesbos irlako errefuxiatuen kanpamentuetako egoera gertutik ezagutu dute. Irudian, Moriako gune bat. MIREN BARDAJI



Abuztua pasatzera joan zen, baina irail osoa ere han pasako du. MIREN BARDAJI



Giro ona eta irribarreak ez dira falta One Happy Family komunitateko akroyoga klaseetan. MIREN BARDAJI

klaseak Bardajik. Duela hiruzpalau urte hasi zen akroyoga egiten. "Kirol horren bitartez ezagutu nuen yoga". Igeriketa saioak ere eskaini ditu udan. "Izugarrria izan da ikustea errefuxiatuek nola gainditu duten urari zioten beldurra; askok ez zekiten igerian".

Bardajik telefonoz kontatu dio TXINTXARRI-ri Lesbosen bizitzen ari dena. Algarekin eta oihuekin nahastu da bere ahotsa. Kick boxing klase baten soinuak. Errefuxiatuak izaten dira irakasleak askotan. "Parkour, muay thai, bodybuilding, kick boxing, wrestling [borroka librea]... kirol asko egiten dituzte".

IA 10.000 PERTSONA BIZI DIRA MORIAKO KANPAMENTUAN, 3.000 KABITZEN DIREN GUNE BATEAN

"KONTURATZEN ZARA GURE EGUNEROKO KEZKA ASKOK EZ DUTELA HAINBESTE GARRANTZIRIK"

Kirola, eta dantza. "Oso politak dira saioak: kultura desberdinetako jende asko elkartzen gara; harremana ikaragarria da". Korrika egiten duen talde bat ere badago: Atenasko maratoia prestatzen ari dira orain. "Oso interesgarria da egitasmoa; kirolak balore asko transmititu ditzake: talde-lana, errespetua, integrazioa... ezaugarri horiek partekatu nahi ditugu guregana egunero etortzen diren errefuxiatuekin".

Eguneroko errutina

Astelehenetik ostiralera ematen ditu klaseak herritarrak. "Egun bakoitza desberdina da, baina badaukat errutina bat". 10:00etatik 18:00etara klaseak, eta gimnasioan zaintza txandak gero. "Ia inoiz ez dugu arazorik izaten". Klase horietako batzuk ez ditu One Happy Familyn ematen, Moriako kanpalekuan baizik, adin txikikoekin. Astelehenetan eta ostiraletan joaten da bertara, 10:00etatik 12:00etara, Yoga Sin Fronteras GKEarekin. Asteburuetan ere egiten dituzte ekintzak errefuxiatuekin. Egun osokoak dira horietako batzuk *Beach Party Day* izeneko festa, esate baterako. Hondartza batean ospatu zuten. "Bainujantziak,

kartak, jokoak... eraman genituen; ederki pasatu genuen".

Irlara iritsi eta aurreneko asteburuetan hainbat bidaiari egin zituen Bardajik iheslariaren kanpamentuetara. Egoera oso gordina dela ikusi dute, gertu-gertutik. Elixabet Manzano medikuak, berarekin bidaiatu zuen euskal herritarretako batek, honakoa esan zion, Lesboretik Kios irlara abiatu aurretik: "Prebentzio lana egiten duzue". Herritarrak dio "ikusuntu oso interesgarria" dela hori: "Errefuxiatuek arazo fisiko ugari dituzte, jakina, baina mentalak ere bai: depresioak eta euren buruaz beste egiteko saiakerak, ez dutelako ikusten euren egoera konponduko denik, eta ez daukatelako ordu batzuek euren egoeraz ahaztu eta beste ekintza batzuk egiteko aukerarik".

Ez konpontzeko, ezta hobetzeko zantzurik ere. Egoera "okerrera" doala azpimarratu du herritarrak. "Irlara iristen diren iheslariak Morian erregistratzen dituzte, eta zain geratzen dira gero, bizitzeko eta lo egiteko toki bat noiz lortuko zain. Bitartean, lurrean egiten dutelo, kartoi artean... ahal duten bezala". Deportazioak areagotu ditu Greziako gobernuak berriki: "Hemen ezagututako

pertsona ugari alde egin behar izaten dute egun batetik bestera; gogorra da hori". Gutxiak lortzen dute asilo politikoa; beste guztiak Turkiara deportatzen dituzte, edo iparralderago dagoen Nea Kavala kanpamentura eraman. "Asiloa eskatzeko bilera baino egun batzuk lehenago eraman dituzte batzuk; shock egoeran zeuden".

Bardajik boluntario lana egiten duen komunitateko egoera ez da Lesbosen kanpamentuetako edo Kioseko berbera, herritarrak nabarmendu duenez: "Gogotsu etortzen dira errefuxiatuak egunero. Badaukate arrazoi txiki bat egunero esnatu eta ekintzaren bat egiteko; ilusioa daukate. Horrela senti daitezten saiatzen gara gu".

Urrian, itzulera

Abuztu hasieran iritsi zen Bardaji Lesbosera. Hasiera batean hilabetez egoteko asmoa zeukan, baina erabaki du irail osoa ere han pasako duela. Urrian itzuliko da. "Esperientzia ederra bizitzen ari naiz: txunditu nau nola egiten dioten aurre euren muturreko egoerari, bizitzeko zenbat gogo daukaten... Konturatzen zara gure eguneroko kezka-iturri askok ez dutela hainbeste garrantziarik, haiek jasan behar

dutenarekin alderatuz". Oraindik ez da Lasarte-Oriara bueltatu, baina dagoeneko "oso argi" dauka Lesbosera edo inguruetara gehiagotan joango dela etorkizunean. "Edozein pertsonari gomendatzen diot Lesbosera etortzea".

Izugarrria. Aurreko paragrafoko azken adjektibo hori erabiltzen du Bardajik Lesbosen egiten ari den boluntario lana deskribatzeko: "Gauza asko partekatzen ditugu gurekin egunero egoten diren errefuxiatuekin. Harreman oso estua egin dugu; elkarrekin ikasten eta lan egiten dugu, elkar errespetatuz".

Bardajirekin batera bidaiatu zuten bi lagunak, Miren Zubeldia eta Elixabet Manzano, bueltatu dira Euskal Herrira. Herritarrak azaldu duenez, Lesbosen egon bitartean "informazio ugari" bildu dute hiruek, argazki mordoa atera eta hainbat errefuxiatuekin hitz egin. Hemen inguruan partekatu nahi dute hori guztia orain. Datorren asteke asteartean, urriak 1, arratsaldeko zazpitan, *Greziar errefuxiatuekin izandako bizipenak* hitzaldia eskainiko dute Zubeldiak eta Manzanok, Eibarko Portalea Kultur Etxeko bigarren solairuan.

Eguzki Areto Futbola, denboraldirako prest

Asteburu honetan hasiko dituzte ligak Eguzki Areto Futbola klubeko bost talde federatuetatik lauk. Gaztetxoentzako eskola ere laster jarriko dute martxan; 30 gaztetxo apuntatu dira. "Urtetik urtera hazten goaz", esan du Gorka Redondo koordinatzaileak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kamiseta hori-berdeak eta areto futboleko aritzeko botak prest dauzkate Eguzkiko jokalariek: klubaren bost talde federatuetatik lau ligan konpetitzen hasiko dira asteburu honetan. "Helburu bera daukate guztiek: sasoi amaieran ahalik eta ongien sailkatuta egotea", adierazi du Gorka Redondo koordinatzaileak. Dena den, badaki xede horiek gero ez direla beti betetzen. "Partidek jarriko dute talde bakoitza bere tokian".

Eguzki Aldaz Hartz Klinika Gipuzkoako 1. mailan ariko da, iaz bezala. Mikel Narcisok eta Cristian Arroyok zuzenduko dute taldea. "Jokalariek elkar ongi ulertzen badute, goiko postuetan egon daitezke", aztertu du Redondok. Gipuzkoako Kopan sartuta daude, eta lortu dute hurrengo faserako txartela, Ttakun FTri 1-6 irabazita.

Koska bat beherago lehiatuko da Eguzki ISU Leihoak. Jokalari



Jokalari eta entrenatzaile, ia ehun pertsonak osatzen dute Eguzki Areto Futbola. EGUZKI

berri ugari ditu taldeak, baina edozeinen aurka konpetitzeko modukoak. Urte ugari kantxetan aritutako Jon Arocenak egingo ditu entrenatzaile lanak aurtan. Ilusio askorekin ari dira lanean, baina nabaritzen da oraindik saio ugari egin behar dituztela elkarrekin, taldeko kimika hobetzeko. Gipuzkoako Kopatik

at geratu dira; Euskaldunaren aurka 1-10 galdu dute.

Emakumezkoen senior taldea, Eguzki Garoa Taberna, laster hasiko da partida ofizialak jokatzen. Oscar Garciak segiko du lemazain lanetan. Jokalari gehienek ere jarraituko dute. "Giro bikaina sortu zuten iaz". Lara Torinos kapitaina osatu

bitartean, ahalik eta emaitza onenak lortzen saiatuko dira.

Harrobian badago aldaketarik: kadete mailan ez da ariko talderik aurtan, ez zeuzkatelako behar adina jokalaria. Bai, ordea, jubentzetan: Eguzki 2KN eta Eguzki Balerdi lehiatuko dira. Entrenatzaileak, hauek, hurrenez hurren: Francisco Perez *Kiski* eta Ibai Zamora; eta Edu Mena eta Gorka Redondo. "Jokalariek areto futbolaz gozatzea nahi dugu, eta jokatzen ikastea, etorkizunean goiko taldeetara igo daitezen", nabarmendu du koordinatzaileak.

Gazteen eskola, laster martxan

Eguzki klubak areto futbola ezagutarazi nahi du herrian. Iaz bezala, gaztetxoentzako eskola martxan jarriko du laster. Redondok adierazi duenez, 30 gaztetxo apuntatu dira, 2018-19 sasoiaren baina hiru bider gehiago. Topaketak egingo dituzte hilabetearen behin, baina ez dute zehaztu noiz hasiko diren, Gipuzkoako gainontzeko areto futbol eskolekin bilerak egin eta ados jarri behar dutelako.

Beste egitasmo batzuk ere badituzte esku artean. Hurrengo astean ospatuko ditu Sasoetak auzoko festak –urriaren 4tik 6ra, ostiraletik igandera–; txapelketa antolatuko du Eguzkik. Ttakunen Udako Txokoetan ere parte hartu zuten; neska-mutilei irakatsi zizkieten areto futbolaren oinarriak, jokoen eta ariketen

bitartez. "Herrian antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko prest gaude", azpimarratu du Redondok. Eguberriko Txapelketa ere egingo dute, azken urteetan bezala, abendu bukaeran. "Ezer ez litzateke posible babesleen laguntzarik gabe".



Nork altxako du garaileen kopa aurtan?

Herriko areto futbol txapelketan izena emateko epea irekita dago: urriaren 6a izango da azkeneko eguna, igandea. Udalak eta Sportmadness enpresak antolatuko dute kirol ekitaldi hori. Izen-emate ordenaren arabera onartuko dituzte taldeak; asko jota, hamalau. Prezioa: 445,50 euro.

Internet bidez izena eman behar dute taldeek, Leverade izeneko aplikazioan.

ASTE BURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Hernani CD - Ostadar SKT

Larunbata. 10:30. Zubipe, Hernanin.

ERREGIONALEN GORENGOA

Gure Txokoa KKE - Ostadar SKT

Larunbata. 16:30. Matxada, Beran.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT B - Segura Goierri B

Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.

Lazkao KE - Ostadar SKT A

Larunbata. 18:15. Aristi Handi, Lazkaon.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - SANSE

Larunbata. 14:15. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA

Ostadar SKT B- Idiazabal

Larunbata. 14:45. Michelin kirol gunean.

Danena KE A - Ostadar SKT A

Igandea. 12:00. Elbarrena, Zizurkilan.

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarrok

Larunbata. 15:45. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Zumaiako FT

Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

SENIORRAK, 1. MAILA

Mondrate CD - Eguzki Aldaz H.K.

Igandea. 11:00. Iturripe kir., Arrasaten.

SENIORRAK, 2. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Tecnun

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.

JUBENILAK

Eguzki 2KN - Mondrate CD

Larunbata. 12:00. Maialen Chourraut kir.

Erain - Eguzki Balerdi

Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kir.

SASKIBALOIA

SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Ekhitarrak

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.

SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Ekhitarrak

Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Bera Bera Albistur - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Manteo kir., Donostian.

JUNIOR PARTAIDETZA LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Ekhitarrak

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.

KADETE ERRENDIMENDUA

Ostadar - Bera Bera

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA

LAPKE 1 - Intza

Ostirala. 18:00. Joxe Migel Barandiaran, Lazkaon.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA

Intxurre - Intza

Ostirala. 19:30. Elorri, Alegian.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA KADETEA, 2. MAILA

Gazteleku - Intza

Larunbata. 10:00. Arrate, Andoainen.

PIRAGUISMOA

MUNDUKO TXAPELKETA

Maialen Chourraut piraguitak K1 modalitateko Munduko Txapelketako final-erdiak eta finala jokatuko ditu.

Bihar, egun osoan zehar. La Seu d'Urgelleko (Leida, Katalunia) kanalean.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Babyauto Zarautz - Camp. Univ. Ourense

Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA

Babyauto Zarautz - La Unica B

Larunbata. 17:25. Michelin kirol gunean.

18 URTEZ AZPIKOA

Babyauto Zarautz - Hernani /Atl. San Sebastian

Larunbata. 17:00. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOA

Atl. San Sebastian / Hernani - Mutriku / Zarautz / Beltzak

Larunbata. 11:00. Aiete, Donostian.

ESKOLA JARDUNALDIA

LH3 mailako gaztetxoekin eskola jardunaldia egingo dute.

Larunbata. 09:30. Asti, Zarautzen.

MENDIA

LASARTE-ORIAKO I. MENDI FESTA

Lasarte-Oriako inguruak ezagutzeko aukera emango du I. Mendi Festak. Bi ibilbide daude: familiarra (12,5 km.) eta luzea (25 km.). Izena ematea irekia dago oraindik. Igandea. 08:00 eta 09:00. Okendo plaza.

IPAR MARTXA

IRTEERA

Ostadar Ipar Martxa taldeak irteera egingo du Valderejoko Natur Parkera. Herranetik Lalastrarako ibilbidea egingo dute.

Larunbata. Egun osoa.

Chourraut, Munduko Txapelketaren bila

Lasarte-Oriako palista bihar, larunbatean jokatu den K1 mailako final-erdirako sailkatu da. Tokioko Joko Olinpikoetako sailkapena dago jokoan. Asteazkenean, taldeko lehiaketan laugarren izan zen Sorribesekin eta Martinezekin batera

Txintxarri

Piraguismoko eslalom Munduko txapelketa hasi zen asteazkenean, irailaren 25ean, Kataluniako La Seu d'Urgell herrian. Maialen Chourraut herritarra bertan da lehian. Final-erdiko irteeran izango da bihar, 10:08an. Munduko Txapelketa garrantzitsua da 2020. urteko Tokioko Jokoetarako txartelak jokoan baitaude.

Ez zuen ongi hasi Maialen Chourrautek Munduko Txapelketako abentura. Asteazkenean K1 mailako taldeko proba izan zen eta Espainiako hirukoa laugarren izan zen.

Laia Sorribes eta Marta Martinezekin batera lehiatu zen Chourraut proba horretan. Hamaikagarren taldea izan zen irteera puntuan eta denbora onena egin zuten, 104,36. Bidean Sorribesek hamaikagarren atea ukitu eta bi segundoko penalizazioa gehitu behar izan zuten.

Gutxi iraun zuen pozak, Britania Handiak, Txekiar Errepublikak eta Errusiak hobetu zuten espainiarren jaitsiera eta laugarren postuarekin konformatu behar izan ziren.

Dominaren bila

Atzo, osteguna, banakako K1 maileko lehenengo sailkapen



Maialen Chourraut Munduko Txapelketako sailkapen saioan. BASQUE TEAM

saioan final-erdirako txartela eskuratu zuen zazpigarren postua lortuz, 105,18ko denborarekin.

Jaitsieran hirugarren denbora onena egin zuen arren, ibilbidea zaila izan zen. Piragua zuzentzeko zailtasunak izan zituen eta gainera, herritarraren hitzetan, atea ohi baino baxuago zeuden. Horrek guztiak, seigarren eta hogeigarren atea ukitzea ekarri zuten. Asko sufritu zuela onartu zuen Chourrautek.

Bihar, larunbata, goizeko hamarrak aldera jokatu du final-erdia herritarrak eta, ondo

bidean, 12:40ean, finalean izango da. Finalera iristeak gainera badu beste sari bat: Tokioko Joko Olinpikoetarako txartela poltsikoratzea.

Jessica Fox australiarrak, Mallory Franklin britaniarrak edo Stefanie Horn italiarrak baino jaitsiera hobea egin beharko du urrea lortzeko. Abantaila bat du ordea herritarrak: oso ongi ezagutzen du Parc del Segreko kanala. Bertan entrenatzen du eta 2009ko Munduko Txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen.



Partidan zehar, melek ugariak izan ziren. SOLO RUGBY DESDE ASTURIAS

Babyauto Zarautz taldeak garaipena erdietsi du Oviedon

Larunbatean, Babyauto Zarautz eta La Unica B taldeen arteko norgehiagoka izango da Michelin kirol gunean

Txintxarri

Kostata, baina Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldeak bost puntu ekarri zituen larunbatean Oviedotik.

Nahiz eta Real Oviedo aurten mailara igotako taldea izan, zaraustarrek ederki lan egin behar izan zuten arerioaren etxean garaipena lortzeko, 15-22. Lehen jardunaldian gainera, garaipena erdietsi zuen taldeak eta euren ikusleen aurrean ez zuten gutxiago izan nahi.

Indartsu hasi zen Oviedo eta zigor kolpe batez baliatu zen markagailuan aurreratzeko. 30. minutuan lortu zuten zaraustarrek defentsa hautsi eta berdinketako puntuak eskuratzeko. Asturiarrak ederki defendatu zuten eta zaraustarrek aurrera egiteko arazoak zituzten. Lehen zatia amaitzear zela, Oviedoko jokalaria bati txartel horia erakutsi zioten. Ostean, beltzek entsegua egin zuten eta atsedenaldira 3-8 joan ziren.

Bigarren zatia jokalaria bat gutxiagorekin hasi zuen arerioak eta hala ere, zigor kolpeei esker, aurre hartu zuen Oviedok, 12-8. Ez zuen zirrikiturik uzten eta zaraustarrek zail zuten baloiaren jabetza eskuratzeko. Jokaldiak ongi landu behar izan zituzten beltzek aurre hartu eta partida irabazteko.

Igande honetan, Campus Universitario Ourenseren aurka jokatu du partida. Bi taldeek puntu kopuru berdina dute sailkapenean, 9 puntu. Partida zirrargarria izango da, beraz.

Errugbia Lasarte-Orian

Honez gain, Euskal Liga, 18 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko taldeek emango diote hasiera denboraldiari.

Partidetako bat gainera Michelin kirol gunean jokatu da. Babyauto Zarautz- La Unica B Euskal Ligako partidaz gozatu ahalko da larunbatean, 17:25etik aurrera.

Gomez eta Gil, BerroBira herri krosetako podiumean

Igandean I. Mendi Festa izango da Lasarte-Oriako inguruetan. Egunean bertan ere izena eman daiteke

Txintxarri

Atsedenerako tarterik ez dute hartzen Raul Gomez Margallo eta Gorka Gil herritarrek. Asteburu lasterketa batean parte hartu eta lehen postuetan sailkatzen dira. Azkena,

BerroBira herri krosa izan da. Podiumeko bigarren eta hirugarren mailetan egon ziren herritarrak.

Larunbatean, irailaren 21ean, 52 korrikalarik hartu zuten parte Berrobiko proban. Lasterketa

hasi baino lehen, lehenengo astean hildako Ibon Gonzalez korrikalaria gogoan izan zuten.

Hasieratik lehen postuetan izan ziren bi herritarrak. Birak egin ahala, guztira bost eman behar zituzten, taldea gutxitzen joan zen. Raul Gomez eta Aitor Regillaga geratu ziren nor baino nor eta tolosarrak irabazi zuen azken metroetan lasarteoriatarri aurre hartu eta gero.

Gilek, berriz, minutu bat gehiago behar izan zuen helmuga zeharkatzeko.



Gomez Margallo bigarren izan zen. J. ZATARAIN

Asteburu honetan, berriz, herrian izango da hitzorduetako bat. Lasarte-Oria Trail taldeak antolatutako I. Mendi Festa izango da igandean.

Lasarte-Oriako inguruak ezagutzera ematea du helburu probak eta horretarako bi ibilbide izango ditu; luzea (25 km) eta familiarra (12,5 km).

Izena ematea kirol probak orrialdean edo Manuel Lekuona kultur etxean egin daiteke. Egunean bertan Okendo plazan ere egin ahalko da.



Hutseko berdinketarekin amaitu zen Ostadar eta Intxaurdiren arteko norgehiagoka, igandean, Michelingo zelaian. TXINTXARRI

Denboraldiko bigarren partidak, Michelinen

Hiru puntu etxeratu dituzte Ostadar erregional mailako gizonetakoek, larunbatean Michelinen jokatuako partidaren. Emakumezkoek, ordea, ezin izan dute garaipena lortu Inxaurdiren aurka, baina berdinketari esker, puntu bat gehitu dute sailkapenerako

Txintxarri

Emaitza ederrarekin amaitu dute denboraldiko bigarren partida erregional mailako gizonetakoek. Michelinen jokatu dute norgehiagoka, etxean, eta Oiarzun izan dute aurkari.

Arratsaldeko 17:15ean hasi zen partida, eta lehenengo zatian, nahiko paretsu aritu zirela azaldu du Raul Rodriguez entrenatzaileak. "Gu baino apur bat hobeto aritu ziren aurkariak. Zenbait mugimendu zuzendu behar izan genituen guk".

Jokoa zuzenduta 30. minutuan iritsi zen etxeko taldearen lehenengo gola. Korner batetik baloia atera, eta Ibon Garcia jokalaria erraz sartu zuen baloia aurkariaren atean.

Sei minutu beranduago iritsi zen Ostadarren bigarren gola. Area kanpotik baloia jaurti eta aurkariaren atean sartu zuen Egoitz Rodriguezek.

Iker Hernando atezainak egindako bi geldiketari esker,

markagailuan aurretik joan ziren atsedendira.

Bigarren zatian partida "erabat kontrolpean" izan zuen etxeko taldeak. Taldearen joko onari eutsiz, hirugarren gola egin zuen Iñigo Garciak. Hortik aurrera, erritmoa jaitsi zuen Oiarzunek, eta hori baliatu zuen Ostadarrek, joko "oso ona" egin eta laugarren gola sartzeko.

90 minutuak pasata, hiru puntu eskuratuta amaitu zuten.

Asteburu honetan Beran jokatu dute partida, larunbatean, 16:30ean.

Emakumezkoek, puntu bat

Intxaurdiren aurka jokatu zuen partida, aldiz erregional mailako emakumezkoen taldeak. Igandean izan zen partida, hau ere, etxean.

N e k a n e Q u i ñ o n e s entrenatzaileak azaldu duenez, "oso jarrera ona" izan zuen taldeak partida guztian zehar. Alex Altunarekin batera prestatzen du taldea. Baina bigarren zatian iritsi ziren

sentsazio "arraroak". 57. minutuan, ohartarazpen bikoitz baten ondorioz, txartel gorria jaso zuen Intxaurdiko Amaia Miguelek; kaleratua izan zen.

Jokalari bat gutxiagorekin geratu zen talde aurkaria, baina Ostadarrek ez zuen egoera hori behar bezala aprobetxatu, eta golik sartu gabe, berdinduta amaitu zuten norgehiagoka.

Jokalari aldetik, eskas

Quiñonesek azaldu du bere taldeko jokalariek futboleko hobbyagatik aritzen direla, eta hori horrela izanik, beste zereginak aurretik jartzen dituzte. Horrela, igandeko partidaren, baja bat baino gehiago izan zituzten. Bi jokalarik bidaia bat zuten hitzartua, eta horien huts egiteari, denboraldi-aurrean min hartutako jokalarien bajak batu zitzaizkien. Lesio nahiko handiak dituzte horiek, eta "luze" joango da erreuperazioa.

Hurrengo partida larunbat honetan jokatu dute, Hernanin.



Artetxe eta Elola, larunbateko partidaren, pilota aukeratzen. TXINTXARRI

Tanto luzea eta gero, ez dute irabaztea lortu

Intzako lehenengo mailako taldeak galdu egin du Lazkaoren aurka, Michelinen. Bigarren taldea, berriz, garaile izan da

Txintxarri

Michelingo frontoian jokatu dituzte partidak Intzako pilotarietako, asteburuan. Lehenengo taldeak, ezin izan dio aurre hartu Lazkaori, baina bigarrenak, berriz, aise irabazi dio Zumaiari.

Artetxe eta Elolak aurretik abiatu dute norgehiagoka, eta garaile mantendu dira partida erdialdera arte. "Serio" aritu dira jokoan, eta aurkariaren akatsak baliatu dituzte aurretik mantentzeko. Partiduaren erdialdean, ordea, markagailuan 13 eta 15 aurreratu zitzaizkien Senar eta Garmendia

lasarteoriatarrei, eta hortik aurrera, 15na berdintzea lortu bazuten ere, ezin izan zioten garaipenari eutsi. Tanto luze baten ostean, nagusi izan dira lazkaotarrak, eta erraz iritsi dira 22ra.

Zumaiaren aurka, irabazi

Bigarren taldeak, berriz, erraz irabazi dio Zumaiari. Urkia eta Iruretagoiena nagusi izan dira norgehiagoka osoan. Saketik min handia egin die Urkiak aurkariari, eta, aukerak baliatuta, partida uneoro kontrolpean izan dute herritarrek.

Egun osoko irteera antolatu du Ipar Martxak larunbaterako

Arabako eta Burgoseko lurak zapalduko dituzte Ostadar Ipar Martxako lagunak asteburuan

Txintxarri

Valderejoko Natur Parkera joango dira, larunbatean, Lasarte-Oriako Ipar Martxako lagunak. Goizeko 08:30ean abiatuko dira, autobusez, eta 10:30ean Herranera (Burgos) iritsiko dira. Bertatik hasiko dute ibilaldia, eta bazkal ordurako, Lalastrara (Araba) iritsiko dira.

Bazkaldu eta gero (16:00etan), egunari jarraipena emateko, Añanako Gatz Haranera joango dira, eta bertan bisita gidatu baten bidez, lekua ezagutzeko aukera izango dute.

Bisitarekin batera, sorpresa txiki bat ere izango dutela aurreratu du Rosa Ormazabal Ipar Martxako kideak, baina ez du detaile gehiagorik azaldu.

Bisitaren ostean, 19:00ak aldera berriz ere autobusa hartu, eta Lasarte-Oriara itzuliko dira.


Guztira 46 bat lagun elkartzeko dira irteeran, eta jakitera eman dutenez, gaztetxo eta helduak elkartzeko dira. Horregatik, ibilbide ezberdinak egiteko aukerak izango dituzte.

Urria ere ekitaldi bat baino gehiago izango ditu taldeak.

ZORION AGURRAK



Make
Zorionak maitia!! Ondo pasa zure urtebetetzean!! Zure "amorcitos"-en partetik!!



Ekain
Zorionak guapeton, etxeko bihurrienari milaka muxu, ondo pasa eguna bitxito. Amaiur, aitabo eta amatxoren partetik.

JAIOTAKOAK


Olaia Gutierrez Becerra. Irailaren 22an.
Izaro Martinez Hernandez. Irailaren 22an.
Markel Sañudo Santos. Irailaren 21ean.

HILDAKOAK


Juan Cano Atalaya. Irailaren 20an.
Mª Jesus Bardaji Olloquiegui. Irailaren 19an.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 27




Larunbata, 28




Igandea, 29




Astelehena, 30




Asteartea, 01



Asteazkena, 02



Osteguna, 03



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zorientzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta
Bidali zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus
helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, urtebetetze-
eguna eta nahi duzun testua. Ez
ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 27 LASA
Larunbata, 28 GIL
Igandea, 29 GIL
Astelehena, 30 DE MIGUEL
Asteartea, 01 ACHA-ORBEA
Asteazkena, 02 URBISTONDO
Osteguna, 03 GANDARIAS-URIBE

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

		8	4		5			2
		7	9			5		
4		5	6			1		9
5			2	8				3
8				5		9	2	
	4	2		6	9	8	5	
	8			4	6	2	1	
1		6		2				5
2	5			9		3	6	

OHARRAK

Katekesia

2019-2020 ikasturteko katekesi saioak urrian hasiko dira. Lehen Hezkuntzako lehen mailan dauden gaztetxoek izena eman behar dute. Izan ere, jaunartzea egin ahal izateko hiru urtez katekesia jaso behar dute gaztetxoek.

Inskripzioak San Pedro elizan eta Arantzazuko Amaren parrokiaren egingo dira. San Pedro elizan urriaren 5ean, larunbata da hitzordua: LH1, 10:30ean; LH2 11:30ean eta LH3 12:30ean. Arantzazuko Amaren parrokiaren hiru egun egongo dira: LH1, urriaren 8an, asteartea, 18:00etan; LH2, urriaren 7a, astelehena, 18:00etan eta LH3, urriaren 9a, asteazkena, 18:00etan.

La Polla Records kontzertua

La Polla Records taldeak urriaren 18an Bilbon eskainiko duen *Ni descanso, ni paz!* girako kontzerturako autobusa antolatuko dute. Autobusean joan nahi dutenek Jalgi kafe-antzikian izena eman behar dute.

Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkarteak

Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko elkarteak diru-irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta duela 50 urte baino gehiago sortu zen. 1997 urtetik Zuhazpe aterpetxea du martxan Usurbilen. Elkarteak, besteak beste, kalean dauden edo tratu txarrak jasan dituzten animaliak jaso, zaindu eta familia berria bilatzen dio harrera edo adopzioaren bitartez.

Bere xedea aurrera eramaten laguntzeko kide berri bila dabil elkarteak eta horregatik gipuzkoarrak gonbidatzen ditu Zuhazpe aterpetxera hurbildu (Kalezar auzoa 84, Usurbil) eta euren lana ezagutzera. Bisitak astelehenetik larunbatera egin daitezke 10:00etatik 14:00etara.

Kiroldegiaren neguko ordutegia

Irailaren 1an, Udak Kirol instalazioetan neguko ordutegia indarrean jarri zen.

Maiaren Chourraut kiroldegia astean zehar, 7:00etatik 22:30era irekita egongo da; igerilekua berriz, 7:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era. Larunbatetan, 9:00etatik 20:00etara egongo dira instalazioak erabilgarri, igerilekua eta sauna izan ezik. Igerilekuaren ordutegia 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara da eta sauna itxia dago. Igandeetan, kiroldegia, zein igerilekua, 9:00etatik 13:00etara egongo dira irekita.

Michelin Kirol guneari dagokionez, astelehentik ostiralera arratsaldez bakarrik egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbateko ordutegia 9:00etatik 20:00etara izango da eta igandekoa, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Odol ateratzea

Lasarte-Oriako odol emaleek irailaren 30ean dute hileroko hitzordua. Ohi bezala, Osasun Zentroan arratsaldeko 17:30etik 20:30era odol ateratzeak egingo dituzte.

Elkarteko kideek emaila ez diren herritarrak gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

Ikastaroetarako proposamenak

Ttakun Kultur Elkarteak kultura saila ikastaro desberdinak antolatzen hasi da 2019-2020 ikasturteari begira. Baina bazkide, zein erabiltzaileen iradokizunak jaso nahi ditu ikastaro berriak prestatzeko.

Proposamen guztiak Ttakuneko bulegoan, kultura@ttakun.eus edo 685 78 53 89 whatsapp zenbakian.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Logela bakarrek apartamentua alokatzen dut, Iñigo de Loiola kalean. 616 164 823.

Logela bat alokatzen dugu partekatutako etxe batean, Lasarte-Oria erdialdean. Bi neska bizi gara bertan, eta hirugarrenaren bila gabilta. 250 euro eta gastuak. 666 320 520

LANA

ESKAINZA

Pertsona baten bila gabilta, etxeko lanak eta afarria prestatzeko, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. 688 667 982.

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607 110 365.

ESKARIA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Interna edo asteburuetan. 603 296 104.

Pertsona eskaintzen da haurrak zaindu edo pertsona adinduekin egoteko. 638 550 178.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

SALERROSETA

EROSI

Land Rover Defenderra erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta Beñat Lizaso.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artebe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gáinza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo García eta Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Musika. Leku Guztietan Kultura eta Kultur Kale Zikloei amaiera emango zaio aste honetan. Bossa Quartet eta Alitruta taldeek musikaz beteko dituzte Jaizkibel plaza eta Okendo plaza. Larunbata eta igandea.



LASARTE-ORIA Adinekoen omenaldi astea. Biyak Bat elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz pertsona adinduen omenezko astea antolatu du. Lehiaketak, ikuskizunak, kirol jarduerak, erakustaldiak... gustu guztietarako ekimenak izango dira. Urriaren 1etik 8ra, Lasarte-Oria.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Mugikortasun astea
Mugikortasun astea dela eta bi ekintza egingo dira:

11:00etatik 12:00etara, *Ondo ibili* ibilbide osasungarria egingo da Okendo plazatik aterata. Amaieran, hamaiketako izango da parte hartzaile guztientzat.
17:00etatik 19:00etara, *Geocatching familian* jokoa egingo da, Okendo plaza. Saria, 100 euroko Aterpeako bonua, Okendo plaza, goiz eta arratsalde.

LASARTE-ORIA Musika

Leku guztietan kultura ekimenari amaiera emateko, Bossa Quartet taldeak kontzertua eskainiko du. Laukoteak bossa nova jazz eta funk estiloei uztartzen ditu. Jaizkibel plaza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Gautxoria

Gautxori ekimena antolatu du udalaren aurten ere:

21:00etan, Demode Quartet laukotearen kontzertua eta Amaia Gonzalez akademiako ikasleen erakustaldia, areto nagusian.
22:00etan, kafetegiaren irekiera.
22:30ean, Etorri Amaia Gonzalez akademiako kideekin dantzatzera, kafetegia.
00:45ean, amaiera.

Gonbidapena behar da. Manuel Lekuonako leihatilan eskuragarri daude gaur.

Manuel Lekuona kultur etxea, 21:00etatik aurrera.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Mugikortasun astea

Mugikortasun asteari amaiera emateko ekintzak:

10:00etatik 14:00etara, bizikleten bigarren eskuko azoka, Okendo plaza. Txirringak eta osagarriak 9:30etik 10:00etara eraman ahaliko dira. Euria eginez gero, Loidi Barreneko pilotalekuan egingo da.
11:00etatik 12:00etara, bizikleta martxa aterako da Okendo plazatik.

Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Musika

Alitruta taldeak Kultur Kale Zikloari amaiera emango dio. Estilo ugariako musika eskainiko du taldeak. Okendo plaza, 20:00etan.

ELGOIBAR Bertsolaritza

Ane Labaka herritarra Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenean izango da. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira, 16:00etatik aurrera. Herriko Antzokia, 17:00etan.

ASTEARTEA 1

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko asteari hasiera emango dio Biyak Bat elkarteak:

16:00etan, bandera igotzea egingo dute trikitixa doinuez lagunduta, Biyak Bat egoitza.

16:30ean, toka, pote eta igel txapelketak, Isla plaza.

18:30ean, bingoa, Biyak Bat egoitza.

20:00etan, txapelketen sari banaketa.

Biyak Bat elkarteak, 16:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Informazio saioa

Zabor kudeaketa sistemari buruzko informazio saioa eta tailerra jasoko dute Oztaran auzoko herritarrek. Udaleko pabiloia, 18:30ean.

ASTEAZKENA 2

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko asteo ekintzak antolatu ditu Biyak Bat elkarteak:

11:00etan, Biyak Bat elkarteo gimnasia taldearen erakustaldia, Maialen Chourraut kiroldegia.

19:00etan, Virginia Imazek *Sex o no sex* bakarriketa eskainiko du, Manuel Lekuona kultur etxea. Sarrera doakoa.

Lasarte-Oria, goiz eta arratsalde.

OSTEGUNA 3

LASARTE-ORIA Informazio saioa

Zabor kudeaketa sistemari buruzko informazio saioa eta tailerra jasoko dute Zumaburu auzoko herritarrek. Sasoeta-Zumaburu eskola, Zumaburu eraikina, 18:30ean.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Agur Etxebeste

Ostirala: 22:00.

Larunbata: 19:30, 22:00.

Igandea: 19:30.

Astelehena: 19:30, 22:00.

Mascotas 2

Larunbata: 17:00.

Igandea: 17:00.

USURBIL

URBIL

Rambo: Last Blood

Ostirala: 16:00,

18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

Larunbata: 16:00,

18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

Igandea: 16:00,

18:15, 20:30,

22:45.

Mientras dure la guerra

Ostirala: 16:00,

18:00, 20:20,

22:40, 01:00.

Larunbata: 16:00,

18:00, 20:20,

22:40, 01:00.

Igandea: 16:00,

18:00, 20:20,

22:40.

It Capítulo 2

Ostirala: 18:20,

21:40, 23:30.

Larunbata: 18:20,

21:40, 23:30.

Igandea: 18:20,

21:40.

A dos metros de ti

Ostirala: 17:55,

22:15, 00:45.

Larunbata: 17:55,

22:15, 00:45.

Igandea: 17:55,

22:15.

Mascotas 2

Ostirala: 16:00,

16:00, 18:00.

Larunbata: 16:00, 18:00.

Igandea: 16:00, 18:00.

Objetivo: Washington D.C.

Ostirala: 20:00, 22:30.

Larunbata: 20:00, 22:30.

Igandea: 20:00, 22:30.

Padre no hay más que uno

Ostirala: 15:45, 17:50,

20:00, 01:00.

Larunbata: 15:45, 17:50,

20:00, 01:00.

Igandea: 15:45,

17:50, 20:00.

Downton Abbey

Ostirala: 17:00, 19:30,

22:05, 00:35.

Larunbata: 17:00, 19:30,

22:05, 00:35.

Igandea: 15:45,

17:00, 19:30,

22:05, 00:35.

Larunbata: 17:00, 19:30,

22:05, 00:35.

Igandea: 17:00,

19:30, 22:05.

Angry birds 2: la película

Ostirala: 15:50.

Larunbata: 15:50.

Igandea: 15:50.

Ad Astra

Ostirala: 16:30, 19:15,

22:00, 00:45.

Larunbata: 16:30, 19:15,

22:00, 00:45.

Igandea: 16:30,

19:15, 22:00.

Érase una vez en... Hollywood

Ostirala: 20:20.

Larunbata: 20:20.

Igandea: 20:20.

Dora y la ciudad perdida

Ostirala: 15:45.

Larunbata: 15:45.

Igandea: 15:45.

Ghostland

Ostirala: 00:50.

Larunbata: 00:50.

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Adinduen omenezko astea

Pertsona adinduen omenezko asteo ekintzak antolatu ditu Biyak Bat elkarteak:

11:00etan, *Ondo ibili* ibilaldia.

12:00etan, luntxa, Biyak Bat egoitza.

17:00etan, lerroko dantzen erakustaldia, Okendo plaza.

19:00etan, Duo Imperial taldearen kontzertua, Manuel Lekuona kultur etxea.

Lasarte-Oria, egun osoa.

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken final-zortzirena izango da Lasarte-Orian. Aitor Salegi, Eneko Araiztegi, Iñaki Zelaia, Mikel Artola, Oier Aizpuru eta Unai Izagirre izango dira kantuan. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez agortzen ez badira, txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira, 16:00etatik aurrera. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etan.

EUSKAL JAIA '19

URRIAK 19, LASARTE-ORIA

SAGARDO-DASTAKETA
 HERRI KIROLAK
 DANTZA KANTU-JIRA
 DIANA

Atera baserritar jantziak armairutik!!!!

txintxarri

Adi! Bertan zure zerbitzuak iragartzeko toki aproposa. Egin ezazu erreserba!

2 zenbaki berezi kaleratuko ditugu

urriaren 25ean eta urriaren 31n

Lasarte-Oria Bai! hereziak

TXINTXARRI PUBLIZITATEA: publizitatea@ttakun.eus
 Tel: 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

Izena eman Lasarte-Orian!

2019-2020 ikasturtea

Akademiak

Sukaldaritza

Joskintza

Euskaltegia

zitek
zientzi eskola

- IKASKETA TEKNIKAK
- MEKANOGRAFIA
- ERREFORTZU

KLASEAK

Tel: 943363106
 Goikale 12, behea,
www.zitek-akademia.com
info@zitek-akademia.com

SUKALDARITZA IKASTAROA

BASQUE CULINARY CENTERREKO IKASLEEK GIDATUA
 TTAKUNENEA ELKARTEAN
 (16 URTEK GORAKOAK)

Sukaldaritza modernoa, tradizionala, internazionala, ekologikoa...

Asteazkenetan 18.30etik-20:00etara
 Urriak 16tik azaroak 27ra, biak barne

Izen emateko:
 Ttakun Elkarte (Geltoki, 4)
 943 37 14 48 edo 695 78 53 89
kultura@ttakun.eus

70 € ez-bazkideak/ 65€ bazkideak.

EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK

Egiten ikasteko bi ikastaro egingo dira Urriaren eta Azaroan, astearte eta ostegunetan 15.30etik 17.30era,

Prezioa hilabeteka:
 Ttakuneko bazkideak 22€, ez bazkideak 25€.

Izen emateko:
 Ttakun Elkarte (Geltoki, 4)
 943 37 14 48 edo 695 78 53 89
kultura@ttakun.eus

eman izena!

aek
euskara praktikoa

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

Munnteri AEK euskaltegia
 Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria
 • 943 37 28 63 • lasarte@aek.eus
www.munnteri.blogspot.com.es

Hurrengo gidan parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: 943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus